

TXIKITTO

2011ko azaroa

123



emaiozu zure onena:
EUSKARA



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ekhi Belar, Koldo Mitxelena
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,
Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Azaroaren 3an eta 10ean, Aerobic saioak izan zituzten **Urkizu** eskolako 3. zikloko ikasleek eta primeran pasatu zuten. 2an eta 3an, lehengo eta bigarren zikloko ikasleek "Kontsumo Tailer-rak" izan zituzten. Ikasleek asko disfrutatu zuten "Ontzien berrerabilera", "Lehengaien eraldaketa", "Ogia" eta "Ehunak" tailerretan. 14an, Gaztainerre eguna ospatu zuten Urkizu eskolan. Hilaren 14an, Urkizun egiten duten, "Ezetz asmatu!" lehiaketaren, 1go edizioaren sari banaketa izan zuten. 25ean, 3.zikloko ikasleak, Debarroa taldeak antolatuta, Lasturrera joango dira "Talogintza" egitera.



Hilabete honetan jai ezberdinak ospatzen ditugu herrian eta baita **La salle** Isasi ikastetxean ere. Lehenengo Azaroaren 14an Gaztainerre ospatu zuten; egun honen inguruan, bertsoak, eskulana, kantak etab. landuz, nola ez gaztainak jan zituzten eta oraindik gaztaina usain goxoak ikastetxean dirau!

Azaroaren 17an 2. mailakoek elikadura tailerra izan zuten, bertan gaztainak litxarkeriak baino osasuntsuagoak direla ikusiz.

Hilabetea ondo bukatzeko, **SAN ANDRES** azoka egingo dute ikastetxean, txorizo, dantza, abesti eta herri kirol eta guzti! Ondo pasa herriko jaietan!



Urriaren 24an **Arrateko Andra Mari** ikastetxeko 3. eta 4. mailakoak Donostiara joan ziren, erliebearen elementuak ezagutu eta Aquarium-a ikustera. Oso ondo pasatu zuten eguna eta pila bat ikasi zuten, hurrengo egunetan Aquariumeko aditu batekin marrazoei buruz lan egin eta dena lotuz.

Egun berean 5. eta 6. mailakoak "Uni"-ra joan ziren antzerkia ingelesez ikustera "Robin eta Hood" antzezlanari ikusi zuten eta beste eskola batzuetako ikasleekin elkartu ziren, ondo pasatu zuten, ezta?

Gaztainerre eguna ere ospatu zuten. Abestiak, bertsoak eta gaztainak izan dira ospakizunaren muina. Ikasle, irakasle eta guraso, tarte polita izan zuten elkarrekin. Mila esker beti laguntzeko prest dauden guraso havei!


5. eta 6. mailako ikasleak Arotz-Eneara joan ziren, ingurugiroa eta natura aztertu zituzten eta elkarrekin egun politak igaro zituzten.





DENBORAPASAK

AUTODEFINITUA



- ANTIXOA
- ELTXOA
- GORILA
- LEHOIA
- UNTXIA
- ARRANOA
- DORTOKA
- IZURDEA
- OLAGARROA
- AMUARRAINA
- KARRAMARROA
- BEHIA

Ezker-Eskuin

1. Kapelua.
7. Aimenta
8. Eguzkiaren jainko egiptoarra
9. Nafarroako urtegia
10. Jardun, eragon
12. Kontsonante bikoitza
13. Apustua
15. Pertsonak edo gauzak kritikatzeko eta barregarri uzten dituen obra

Goitik behera

1. Hats, usain txar
2. Lokarria, lotura
3. Haur hizkeran, musua
4. Arraioa!
5. Azkar, berehala
6. Hutsa, errua
11. Pausaldi (alderantziz)
14. Pare bat

GURUTZEGRAMA 6X6

1	2	3	4	5	6
7					
8			9		
10		11		12	
13			14		
15					

Hizki-zopa

BIZKAIAKO HERRIAK



TXISTEAK

Bazegoen gizon bat hain zaharra, hain zaharra, hain zaharra zen, espermatoziodeak beharrean espermatozauroak zituen.

JULENE ARTOLAZABAL



Txeritxo batek esaten dio bere amari:

-Ama, ama, zergatik daukat pitzadura hemen behean?

-Goian izango bazenu, itxulapikoa izango zinatekeelako.

KARMELE HURTADO

Ume bat etxera doa eta esaten dio amari:

-Ama, albiste on eta txar bana daukat.

-Kontatu ona lehenik.

-Nintendoa laga dut.

-Oso ongi. Eta txarra?

-Ez dakidala non.

MADDI BADIOLA



Gizon mozkortu bat sendagilearengana doa eta zera esaten dio:

-Mediku jauna, oso kezkatuta nago nortasun bi ditudalako.

-Lasai mutil, egin dezagun guzti hortaz berba laurok.

MARKEL PEREZ

Kanibal bat dago hegazkin batean eta esaten dio azafatak:

-Zer nahi duzu jateko?

-Ekarri, mesedez, bidaiarien zerrenda.

ALICIA RON

Baserritar bat tren geltokira iristen da eta taxi baten premia dauka. Orduan, taxilariari galdetzen dio:

-Zenbat kobratuko didazu Zarete mendiraino?

-Sei euro zu igotzeagatik.

-Eta maleta?

-Ezer ez.

-Orduan eraman ezazu maleta eta ni oinez igoko naiz.

LEIRE ALBIZU

-Ama, ama, eskolan 007 agentea deitzen didate.

-Lasai seme, zuzendariarekin egingo dut berba.

-Ez, hori nire misioa da.

LAURA ALVAREZ



Zer esaten dio begi batek besteari?
Ondoan gaude eta ezin gara ikusi.

ERIKA CHIMENO

Zergatik iritsi zen ehunzagoa berandu
ezkontzara?

Zapata asko jarri behar zituelako.

NORA FIDALGO



Gizon bat basamortuan zegoen, eta kriseilu
magiko bat aurkitu eta ukitu egiten du.

Jenioa irten eta zera esaten dio gizonari:

-Zer nahi duzu?

-Ura, ipurdiak ikustea eta txuria izatea.

Orduan, jenioak komun-ontzi bihurtu zuen
gizona.

JAVIER CRIADO



Gurasoak eta haurrak eusko

Eibarko guraso eta haurrek euskarekin zita daukate abenduaren 3an. 'Gurasoak Berbetan Eguna' egingo da egun horretan eta, bertan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ume eta horien gurasoentzat eskulan-tailerrak, jolasak, dinamikak eta abar egongo dira goizean eta arratsaldean. Horrez gain, Eibarren umeentzat euskaraz dagoen aisialdi eskaintza osoa bilduko duen erakusketa ere egingo da.

'Emaiozu zure onena: euskara' lelopean, gurasoen euskararekiko jarreraren eragitea da egitasmoaren nahia. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako ekimen honen helburua "euskaraz dakitenak euskarazko jarrera positiboa izatea



eta hori seme-alabei transmititzea eta euskararen erabileraren garrantziaz ohartaraztea da". Era berean, "euskaraz ez dakitenek ere seme-alabei euskararekiko jarrera positiboa helaraztea bilatzen dugu. Ahal duten heinean etxean ematerik ez duena (euskara) beste errekurtso



araz jolasten



batzuk erabiliaz ematea (aisialdia, kirola...)"

Karpa handi bat ipiniko da Untzaga plazan eta 2-3 teknikari/dinamizatzaile gurasoekin arituko dira euren seme-alabei kasu espezifikoan lagungarri gerta dakieken informazioa emanez.

EGITARAUA

11.00-12.00: Eskulan tailerrak.

12.30-13.30: Jolasak (adinaren arabera banatuta).

11.00-13.30: Gurasoei zuzenduta, aisialdi eskaintzaren erakusketa eta aholkularitza zerbitzua.

17.00-18.00: Peio Añorga ipuin kontalaria.

18.00-19.00: Mozorro eta makilaje tailerrak.

19.00-20.00: DJ Arno.

17.00-20.00: Gurasoei zuzenduta, aisialdi eskaintzaren erakusketa eta aholkularitza zerbitzua.



Erletxoak

Erleak ez zaizkizula gustatzen? Beldurrik ezin dizute eman ba gaur gurekin egingo dituzuen erletxoek. Etxean edukitzeko ezin hobeak, eta gainera ondo pasatuko dugu horiek egiten.



MATERIALA

- Artile hori eta beltza.
- Plastikozko arraultza horiak (edozein kolorek balio du, baina horiarekin hobe disimulatzen da).
- Gantz-papera hegoetarako.
- Felpa-makilak antenak egiteko.
- Kola itsasgarria.
- Kolore beltzeko botoi txikiak.
- Haria.



NOLA EGIN

1-Lehenik erlea eskegiko duzun haria zeinen luzea izatea nahi duzun erabaki behar duzu. Haria moztu eta tamaina oneko korapilo sendoa egin muturrean. Arraultza erditik banatu eta korapiloa barruan sartu. Arraultza itxi haria barruan gelditzen delarik eta tira egin beste muturretik ondo dagoela probatzeko.

2-Arraultza artilez inguratu. Horretarako kola itsasgarria erabili dezakezu. Artile beltza eta hori txandakatzen joan.

3-Hegoak egiteko gantz-papera lau zatitan moztu behar duzu.

Binaka itsatsi itzazu, horrela hego bina izango ditugu. Hegoen beheko aldean tolesdura bi egin eta artilearen artean hortik itsatsi.

4-Felpa-makil zati bi moztu, punta tolestu eta artilean sartu antena bezala gelditzeko. Kola-itsasgarria

erabili dezakezu tinko eusteko.

5-Botoitxo beltzak aurpegian begi moduan.



OILOA ETA ZOZOA

Orain dela urte asko gertatu zen hau. Azeriak oiloa harrapatzea erabaki zuen. Zaku handi bat hartu eta oiloaren arrastoari jarraitu zion. Toki ego-
kia aurkitu zuenean, zuhaitz baten ostean ezkutatu eta oiloa agertzeaz bat, taka, zaku barrura. Zozo batek gertatutako guztia ikusi zuen. Zozoa Oiloaren laguna zen.

-Oilo gixajoa! Nire laguntza behar du. Bai, nik ere badakit ziria sartzen...
-pentsatu zuen zozoak.

Azeriaren aurrean jarri zen, geldirik, hego bat apurtuta balu bezala. Zozoa egoera penagarrian ikusita, azeria pozik. "Hau ere zakura", esan zion bere buruari.

Baina zozoa harrapatzeko puntuan zegoenean, honek salto bat egin zuen aurrerantz. Hegalditxo labur bat eta gelditu egin zen. Holan behin eta berriro. Azeria hurbiltzen zen bakoitzean, zozoak hegalditxoa. Bien bitartean oiloak zaku-
kutik ateratzea lortu zuen eta bere lekuan harri bat sartu zuen zakuan.


Oiloa aske zegoela ikusi zuenean, zozoak alde egin zuen. Orduan bai, orduan akrobata baten trebezia egin zuen hegan.

- Hor gelditzen zara -esan zion azeriari.

- Txerri hori! Niri adarra jo nahian?... Ba!, berdin dit. Oraindik oilo gozoa daukat.

Oilo gozoa zeukala, bai zera! Azeria ez zen oiloaren azpikeriaz ohartu eta zakua lepoan hartuta etxerantz abiatu zen. Etxean ura jarri zuen irakiten eta, zaku barrukoa oiloa zela-
koan, lapikora jaurti zuen.... harria. Plausta! Zi-
pristinek salto egiterakoan azeriaren larrua erre egin zuten. Ze erre eta ze arraio! Gaztaina egosiaren antzera geratu zen azeria.

Harrezkero azeria ezta oiloen atzetik ibiltzen.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



OSAGAIAK:

- 60g gurin.
- Taza bat azukre zuri, edo taza erdi azukre beltz eta taza erdi azukre zuri.
- Gatz koilarakadatxo bat.
- Hauts-legami edo koilarakadatxo bat
- 120g irin.
- Arraultza bat.
- Bainilazko esentziako koilarakadatxo bat.
- M&M taza bat.

Iragarkiak dio M&M-ak ahoan urtzen direla eta ez eskuan. Gailetan, ordea, urtuko al dia? Probatu ezazu!

PAUSOAK:


- 1-Labea 180°-tara berotu.
- 2-Ontzi sakon batean irina, legamia eta gatz nahastu.
- 3-Irabiagailuarekin gurina azukrearekin nahastu masa sendoa lortu arte.
- 4-Irinaren nahasketa gehitu eta poliki-poliki irabiatu masarekin bat eginez.
- 5-Bainilazko esentzia eta M&M-ak gehitu.
- 6-Argizari-papera duten 2-3 erretilu prestatu labean sartzeko. Koilara batekin masa pelota txikiak egin (asko zabaltzen dira), bakoitzaren artean 5cm lagaz. 10 minutuz labean sartu horitu arte.
- 7-Labetik uler eta espatula batekin gailetak banatu. Hozten utzi jan aurretik.



M&M

gailetak

INTERNETEN...



clic.xtec.cat/db/listact_es.jsp

Webgunea zati batean gazteleraz badago ere, euskarazko aktibitateak egiteko orrialde zoragarria da kataluniarrek egindako hau. 206 proiektutik gora aurki daitezke euskaraz bertan. Bilaketa egiterakoan, proiektuaren titulua, lantzen duen arloa eta zein mailetarako egokiena den azaltzen da, horrela, errazago aukera daiteke zein proiektu ikusi nahi den. Behin ikusi nahi duzun proiektuan klik eginda, bertan jorratzen den informazioa azaltzen da eta ariketak ordenagailuan bertan egin daitezke. Gainera, proiektu horiek nork garatu dituen jartzen du baita ere. Klik eginez asko ikas daitekeela ikusiko duzu!

Hezitekno.blogspot.es

Hezkuntza eta teknologia berriek bat egiten dute webgune honetan. Blog moduan, teknologia berriek hezkuntzarako baliatzen dituzten eskaintza guztiak azaltzen ditu webguneak. Jokoak, aplikazioak, ariketak, ekintzak, programak... edozelako gauzak aurki daitezke bertan eta link ugari eskaintzen ditu umeentzako diren beste webguneetara joateko. Gaur egun bizi dugun sasoirako webgune proposa da, koaderno eta arkatzetik ordenagailu eta teklatura pasatzeko klik batean.



ARIES

Arropa berria erosiko duzu eta benetan polita izango da. Moda-modan joango zara eta besteak begira izango dituzu hasiera batean.

TAURUS

Ez kezkatu larregi. Ez dituzu arauak behar den bezala bete, baina ez duzu zigor handirik jasoko horregatik.

GEMINIS

Asteburu politik pasako dituzu etxean, bero-bero, txokolatea jaten eta pelikula dibertigarriak ikusten. Klean jolasteko denbora onik ez.

CANCER

Normala da gaua iristean ohean sartzeko gogoan besterik ez izatea. Egun osoan gora eta behera zabilta! Nondik ateratzen dituzu indarrak?

LEO

Oso ondo dago dutxan zaudenean abesten jartzea, oso pozik bizi zren seinale da hori, baina familiakoak ez daude hain pozik. Belarriak tapatzea besterik ezin dute egin.

VIRGO

Ezin duzu inor engainatu, berahala igartzen da egiatan edo gezurretan zabilzala. Hobe horrela, fidagarriagoa izango bazara.

LIBRA

Ez eman guza txikiei garrantzia gehiegi. Baten batek kritika egiten badizu, onera hartu, berak hobetzeko esaten baitizu.

SCORPIUS

Gauzak egun batekik bestera aldatzen dira, eta gaur beltza dena bihar zuria izan daiteke. Beraz, egun txarretan pentsatu hurrengo hobea izango dela.

SAGITARIUS

Ez dakizu nolako zortea edukiko duzun datorren hilabetean! Buruan zenituen hainbat amets beteko zaizkizu egunak aurrera joan ahala.

CAPRICORNIUS

Zure jostailu kuttunena galduko duzu datozen asteotan. Zergatik ez dituzu gauzak beti bere lekuan gordetzen?

ACUARIUS

Ezin duzu pentsatu besteak zure esklabuak direnik. Zure gauzak zu zeuk egin behar dituzu, ez beste inork. Ea ikasten duzun.

PISCIS

Zerura begira denbora asko ematen duzu. Astronomia izatea da zure nahia ala txoritxo asko daukazu buruan?

Nagusixen eta umien artian desberdintasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Zelan ospatzen dozuz Sanandresak? Zelan gogoratzen dozuz?

ASIER BRAVO, 39 URTE

Modu berezixan ospatzen genduan. Lagunekin afaltzen neban eta noizian behin azokara be juaten nintzan. Baserritarrez jantzi, pintxua jan, talua... ondo zeguan.

JESUS GUTIERREZ, 49 URTE

Gogoratzen dot tanborradia zeguala eta jai haundixa zala, Sanjuanen pare. Ez nintzan baserritarrez jantzen, baiña azokara juaten nintzan.


MAIALEN BRAVO, 7 URTE

Eskolan baserritarrez jantzen gara eta abestu egitten dogu. San Andres egunian, gero, gurasuekin eta aitxitxa-amamakin azokara juaten naiz.

MADDI GUTIERREZ, 7 URTE

Eskolan azokia egitten dogu eta bakoitxak gauzak eruaten dittu etxetik: ogixa, kastañak... San Andres egunian bazkarixa egitten dogu urtero soziadade batian.





JON ETA NOJ – GALAXIA ETA MUNDUA

Gavean, argia itzalitakoan, Jonen gela osoa arbel bihurtzen da, aberl handi-handia, beltz-beltza. Eta Jonek arbelean gauzak margotzen ditu: ardi bat, zaldi bat, elefante bat... Behin, astotxo bat marraztu zuen, eta mutil bat agertu zitzaion astotxoaren gainean, Noj. Marrazki bizidunetako zirudien, baina ez, egiazkoa zen; bere aldean desberdina baina egiazkoa, ametsak bezain egiazkoa.




GILES, HAMEKO NEKAZARIA

Giles, Hameko nekazariak, ez zirudien heroia. Bera lodia zen eta bizar gorria zuen. Gainera, bizitza lasaia maite zuen. Egun batean, erraldoi bat bere lurraldeetan agertu zen. Giles nekazariak trebezia baino txiripaz izutu zuen. Orduan, herriko jendeak heroi aldarrikatu zuen. Bere ospea erresuma osoan zabaldu zen. Hori zela-eta, Chrysophylax herensugea hara joan zenean, herriak Gilesenengan jarri zituen esperantza guztiak.



LAU IDAZLUMA AHIZTAK

Denda zahar bateko eskaparatean lau idazluma elkartzen dira. Lau idazluma havek beste eskaparate batean egon ziren elkarrekin azkenengo aldiz, direla ia hogeita hamar urte jadanik. Idazlumek oso harreman estua izaten dute ersten duten pertsonarekin, hau nolakoa den kontuan izanda beraien bizitza guztiz desberdina izan daitekeelako.



PATZIKUREN PROBLEMAK

Pozik eta alai bizi zen Patziku aitarekin eta amarekin, Adele txikia jaio den arte: izan ere, beti negarrez, edo korroskadaka, edo titia xurgatuz ari den gauza horrek hankaz gora jarri du Patzikuren bizitza. Baina neska bat ote da Adele? Patzikuk dinosaurio susmagarria hartzen baitio...



PIZTIEN ERRONKA


Abantia erasopean dago: Piztia magikoak sorgindurik daude, azti gaizto baten malefizioak. Erresuma eta bertako biztanleak salbatzeko, Tomek Sepron itsas sierpea askatu behar du ozeanoaren hondotan. Lortuko al du?





BIHOTZ NAHASIAK

Ikasturteko lehendabiziko eguna. Nerea ikastolara joateko irrikitan dago, badaki eta Maitane, lagun minena, han aurkituko duela. Neskak berehala susmatzen du, ordea, zerbait ezohikoa. Zer demontre ari da gertatzen? Aireak abentura usain bortitza dakarkio. Mutil berri eta bitxi bi topatzen ditugu ikasgelan: Isusko eta Iban. Isuskok izaera nahasgarri bezain erakargarria dauka. Iban, berriz, isila da oso, baina ordenagailuen aurrean zeharo eraldatzen da: hackerra dugu.


SUPER OI OAK



Orain Pipi vere laguna salbatzera
gango da



Eta Pipi berrak
hosi zen Gaiztoarekin



Orain Pipi eta pepi jutu
daude

